

# BERRIGARA


64. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, maiatzak 15

## ZABORREN

PLANGINTZA  
BERRIA  
JARRIKO DA  
MARTXAN  
ASTEBUKAERAN



## BAKEA

GAIARI  
BURUZKO  
IHARDUNALDIAK

## KIROLAK

AITOR ZABALETA  
VILARIÑOREN  
ATZETIK  
SAILKATU ZEN  
JAIZKIBELERA  
IGOERAN



Zirkoaren  
fantasia

Burberrys  
Yuste  
Unicen  
Miguel Ibars  
Lider  
Exigency  
Punto Blanco  
Peyton

Gizonezkoentzako jantziak

**egizabal**

oinetakoak

Firma guzti hauen abala daukagu

CAMPER  
Panama Jack  
Privata  
Runner  
Pons Q.  
Ferrerias  
Paco Herrero  
George's



# TELAETXE, S.A.

OIHAL ETA OIHAL PUSKAK



Aukera handia  
oihal eta oihal pusketan  
metroka zein pisura

Zetak, kortinak, toailak,  
Yakareak, izarak, Tapizak,  
e.a.

**LARUNBAT ARRATSALDETAN  
IREKITA**

Elgetarako bidea  
(Gasolindegitik 300 m.ra)  
Tfnoa: 76 39 40 - 76 39 41 - 76 00 46  
Faxa: 76 56 38, 20.570 BERGARA

## GAUZA BEREZIAK



# Zubizarreta

Ibargarai Hiribidea 4  
BERGARA



# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jaurlaritza

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eñeko Azkarate eta Eduardo Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Mariipi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa :** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lego gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK

### ASIER GARITANO

Bilbao Athletic-en jokatzen duen Asier Garitano bergarra, Lezamako zelaietan 12 urte eman ondoren ez dugu txuri-gorritz jantzita gehiago ikusiko.

Izan ere urtebeteko kontratua geratzen zation arren, Lezamako arduradun tekniko nagusiak, Txutxi Arangurenak, argi esan dio datorren urtean ez duela Athletic-en eta ezta Bilbao Athletic-en ere jokatuko: *"datorren urtean non jokatuko dudan ez dakit. Bi aukera ditut: Athletic-en bertan jarraitu eta klubak beste talde ba-*



*tetan jokatzeko utzi nazake edota taldea betirako utzi eta beste talde bategatik fitxa dezaket. Eibar, Sestao edota Alavesen, igoko balu, jokatzea gustatuko litzaidake.*

### Lezaman 12 urte eman ondoren Athletic utzi behar

## ITURRI ONETIK

### Bergarako gasolindegian berriztapen lanak

Bergarako gasolindegia berrizte lanak bi hilabete barru burutuko dira seguruen. 40 milioitako aurrekontuarekin, kotxeak garbitzeko makina berria edifizioaren atzekaldean jarri, taberna itxi eta markesina nagusia CAMPSaren (gasolindegia jabea) logotipoarekin jantziko da. Ziurtatzeke badago ere, lanak dirauten bitartean gasolindegia itxi egin daiteke.

## ESAN DUTE

"Vilariño Europako txapelduna urduri jartzea lortu dut".

**AITOR ZABALETA**  
autogidaria  
EL DIARIO VASCO

"Zabaleta gidari aparta da. Aurten Espainiako Txapelduna izango dugu eta etorkizun handia igartzen diot".

**ANDRES VILARIÑO**  
autogidaria  
EGIN

"Jaurlaritzaren Errepideen egitasmo Orokorrean Maltzaga-Armiñon sarea sartu dezala eskatu diogu Diputazioari".

**VICTORIANO GALLASTEGI**  
Bergarako Alkatea  
EGIN

"Helburua gazteak fitxatzea zen eta poliziak halaxe frogatu zuen guztiak fitxatu ondoren institutuan berriro sartzen utzi gintuenean".

**MIKEL ZUBIMENDI**  
Jarraiko kidea  
EGUNKARIA

# Mujika Jantxidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91



## LIZAR

### Altzariak


Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53



Tfnoa: 76 38 57  
Irala 1



## ZINEA



El principe de las mareas



Marcelino pan y vino



Vacas

▼▼ **Barbra Streisand** kantari, aktorea eta zinegileak zuzendu eta **Nick Nolterekin** batera protagonizatu duen filme honetan, oroitzapenei buruzko istorio hunkigarria kontatzen zaigu. Oskarretan, 7 nominazio izan zituen.

**(Ostiraletik astelehenera).**

▼▼ Nork ez du gogorutzen **Marcelino?** Ba orain, **Luigi Comencinik** errodututako azken bertsioan, koloretan datorkigu. Marcelino, besteak beste, **Alfredo Landa frailearen** lagun urkoa egingo da **(Igandean matinalen).**


▼▼ Berlingo Zine jaialdian aurkeztu zenetik, **Julio Medem** donostiarraren *opera primak* kritika onak besterik ez ditu jaso. Euskal zinea berrindartuz, gerra zibilaren ikuspuntu guztiz orijinala **(Zine-Klubean).**

### ORDUTEGIAK:

- **OSTEGUNA (Zine Kluba):** 19.30.
- **OSTIRALA:** 22.30.
- **LARUNBATA:** 17.00, 19.30 22.30. **Matinala:** 11.30.
- **IGANDEA:** 17.00, 19.30, 22.15.
- **ASTELEHENA (Ikuslearen eguna):** 19.30.

## ERAKUSKETAK

• **Erliebeaz egindako oleoak:** **Aszensio Esnaola** tallista debarrak azken urteetan egindako lanak erakusten ditu **Kultur Etxean igandera arte.** Ascensiok 18 urte daramatza Bergaran bizitzen eta 68 urte ditu gaur egun. 14 urteko gaztetxoa zela ekin zen egurra lantzen eta gaur egun gure herri-geratzen den tallista bakarra da.



Ascensio Esnaolaren lanak larunbat eta igandean ikusgai Kultur Etxean.

• **Akuarelaz egindako margo erakusketa:** Antonio Arrillagak azken lanen bilduma bat erakusten du **Naikari** tabernan **maiatzaren 31ra arte:**

## KONTZERTUAK

• **Zerbezaren eguna** ospatzeko **Auskalo** taldearen emanaldia **Tartufon. Larunbata,** hilak 16, goizaldeko ordu 2etatik aurrera.

• **Potrotaino** taldea **Soraluzeko gaztetxean,** larunbat gauean.

• **EH Sukarra** eta **DDDP** taldeen emanaldia **Arrasaten** igandean arratsaldeko 19.30etan.

URRATS



Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92  
BERGARA

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58  
BERGARA

YAZKI

UME

GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3 Ibargarai 8  
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73



## IRTEERAK

• **Obserbazio irteera:** Mendia Bizirik *Basurde bideetan* izenburuko obserbazio irteera antolatu du **larunbaterako**. Goizeko 9etan Pol-Polen.

## JAIALDIA

• **Herri jaialdia:** Elgetako **kiroldegian** herriko musikari, kantari eta dantzarien emanaldia larunbatean gaueko 9,30etan.

## FARMAZIAK

- **Larunbata 16:** Estella/Ruiz (Arrasaten gauez).
- **Igandea 17:** Estella/Morales.
- **Astelehena 18:** Mozos/Azkoaga.
- **Astearte 19:** Camacho/Español.
- **Asteazkena 20:** Puy/Corcuera.
- **Osteguna 21:** Guallar/Irizar.
- **Ostirala 22:** Estella/Ruiz.

## OGIA

- **Igandea 17:** Bolintxo.

## KIROLAK

### FUTBOLA

• **Bergara-Gwendoline,** Agorrosinen igandean arratsaldeko 16.45retan.

### PELOTA

• **Herriko Pelota Lekuan:**  
- Arteaga eta Andueza VI./Muntion eta Santi.  
- Bergara II. eta Aldazabal II./Etxaniz eta Maiz II.  
- Gabilondo eta Alberdi III./Retegi III. eta Garaita.

• **Elosuko Otaba Txapelketa:** igande goizean.

• **Pala Txapelketa:** Igandean, goizeko 9etatik aurrera, Osintxuko pelotalekuan.

### IGERIKETA

• **Udaberriko igeriketa saria:** 100 m. bizkarrera, 50 estilo librean eta 200 estiloko probak. Legazpi, Arrasate, Oñati, Eibar eta Bergarako igerilariak parte hartuko dute. Arratsaldeko 4etan hasita.

## AUKERAN



**Udaberriko Kontzertua**ren 4. edizioa igandean ospatuko da herriko pelotalekuan eguerdiko 12etan. Kontzertu aurretik Musika Eskolako Gazteen Bandak kalejira burutuko du.

**Gazteen Bandak** berak, **Tipleen Abesbatza**k, **Soinu Orkesta**k eta **Orkestra Sinfonikoak**, besteak beste, *Mozart, Guridi, Rossini, Weber, J. Busto* edota *Paul Mc Cartney*ren pizeak eskeiniko dituzte Frontoian. Ondoren, poteo musikala izango da herriko kaleetan zehar.

Musika Eskolakoek **Espaloian** egingo duten **herri bazkariarekin** eta **Ibatak** taldeak alaitutako dantzaldiarekin emango diote amaiera jai egiun honi.

 **IZADI**  
**Santiveri** PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

**IRUBIDE**  
**Taberna**

Bazkariak, gosariak,  
afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67

**ARREGI**  
**Eraikuntza**  
**materialeak**

Biltegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93  
Labegaraita Auzoa



### Berrigara berria!!

Aste honetatik aurrera, betiko Berrigarak lau orri gehiago izango ditu. Aldaketa batzuk egin ditugu, sail berriak sortu..., guzti horiek zeu irakurle zaitugunari ahalik eta errebista hobereana eskeini nahi dizugulako.

Berrigaran zeu zarelako berri!!

### Tripako miña

Ikaratuta gaude!, eta azkenengo Berrigaran-Asuntxi Idarreta Sañudoren karta irakurri ondoren, lerro batzuk idatzi beharrean aurkitu gara.

Asuntxi Idarretak dioena dioela, Garrasi Ixilak diru laguntza publikoa jasotzen du; orduan, nor ari da gezurretan?

Zure ustez, Asuntxi, Berrigaran ez al dauka lekurik adierazpen askatasunak?

Izan ere, ez al da egia haundiagoa, zuri eta zuen tartekoei idatziaren filosofiak eman dizuela benetakoa amorruta? Zuk gezurtzat daukazun diru laguntzaren kontua idatziaren puntu bakar bat zen. Bestalde, bakoitzak, nahiz eta gaztea izan, bere eritzia izateko

eta emateko eskubide osoa dauka, eta hori baino gezur haundiagotan ez dugu sinisten.

Eta pena izugarria ematen digu, zu bezalako euskaltzale, bakezale eta egizaleak, espafolista amorratuenean sortu eta txalotzen duten talde baten sinisteak eta era berean helburu ezku-tuak dituen talde hau bultzatzeak.

Gu ere euskaltzale eta pakezaleak gara, baina ez gara inoiz Fraiskozurira, ordu laurdeneko pake eskaera fiktizio horretara hurbilduko, gure ustez Euskal Herriaren askatasuna delako benetakoa pakea.

Bestalde, Berrigarako zuzendaritzari eskatzen diogu, jarrai dezala euskararen normalizazioan betetzen duen lan garrantzitsua bultzatzen. Eta alde batera utzi ditzala, eritzi konkretu batzuk argitaratu ondoren, irakurle amorratu honek egindako oinarririk gabeko proposamenak.

### Bi euskaltzale

### Berriro gauza bera

Bai jauna, oraingoan Estazio Zaharren ondoan izan da, Pesa-ko autobus geltokiaren ondoan. Han maiztaren 11ra arte 7 platanondo zeuden 15 urte baino gehiago zituztenak eta

25 urte inguru zituen palmondo (palmera) bat. Lehenago inguru hura lautu egin zen baina arbolak errespetatu egin ziren eta bertan zeuden 14 harlandu ere apartatu eta bertan utzi ziren zeukaten baloreagatik. Ba, hara non maiztaren 11n eskabadora bat heldu eta aipatutako harriok guztiz tapatu dituen eta hori gutxi balitz, bertan zeuden platanondoak eta palmondoa ere bota egin dira. Arrazoa zein? Ba, egun horretan zirkoa etorri dela herrira eta zirkoko kamioiak aparkatzeko lekua behar zela.

Ados, nago, gerora egin litekeen plan partzalean arbola horiek traba egin lezaketela baina onartu ezin dena da Udalak arbola horiek lekuz aldatu daitezkeenik planteatu ere ez egitea (harriak dagoeneko, lurpean daude). Udal arduradunekin harremanetan jarri gara eta betikoa: «goitik agindu digute», «Bai, pena bat da»... Azkenean kontua arbolarik gabe geratu gara.

Mesedez! Sentsibilitate gehitxogo eta ekintza ponposo gutxiago (Zuhaltz Eguna), zeren gauza gutxi balio du alde batean landatzen ibiltzeak, gero beste batean, goizeko 7,30etan, botatzen bagabiltza.

Felix Maiztegi Zubiaurre

### Tiira ba!



### Josu Okina





**Udalekuak**

**Kikaundi Taldeak** uztaileko prestatutako udaleku irekietarako izena emateko epea maiatzaren 29ra arte egongo da zabalik. Eskolaurreko 1. go mailatik O.H.O. ko 6. maila arteko neska-mutilek euskaraz mintzatu eta, bide batez, eskulanak, mendi irteerak edota eskulanak egin ahal izango dituzte. Izena emateak (Plazako Kikaundi Ludotekan, 5.30etatik 7.30etara) 3.000 pta. balioko du.

**Institutua**

**Bergarako Batxillergo Institutua**n 1.992-93 ikasturterako aurre matrikula epea zabalik dago jadanik. Ikasleek, onarpen eskakizunak maiatzaren 30a baino lehen egin beharko dituzte idazkaritzan.

## Jeringen kontsumoa % 50an gehitu da gure herrian

Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuak eta Farmazeutikoen Kolegioak egindako azterketaren arabera, gure herrian % 50an gehitu zen 1.991an jeringen eta IHESaren aurkako *kiten* kontsumoa. Aurreko urteko abenduan 400 jeringa eta kit (50 pta. tan saltzen den boltsa bat jeringa bat, kondoi bat, injeztatzeko ur anpolla bat, bi sobretxo alkohol eta oharrekin) saldu baziren, 91ko abenduan kopuru hori 603ra igo zen.

*Kitak* salgai jarri ziren jeringa bera drogadikto batek baino gehiagok ez erabili, erabilitakoekin biztanlegoari arriskurik ez sortarazi, kondoiaren kontsumoa gehitu eta, azkenik, informazioa eskeintzeko asmoz. Orain, Bergara, kontsumoa gehitu den herri bakarrene-



tarikoa dugu.

**Arrazoiak bilatzen**

Kontsultatutako farmazeutiko baten esanetan, "*betikoez gain, gero eta gazte gehiago datoz. Gero eta gazteagoak gainera*". Arantzazu Loidi Udaleko Drogomenpeko-tasun teknikariak azter-

keta honek irakurketa bikoitza izan dezakela adierazi zigun: "*beharbada beste herri batzuetan beste kontsumo formak erabiltzen direlako izan daiteke; edota gure herrian beste herri batzutan baino neurri prebentibo gehiago hartzen direlako. Arrazoiak aztertu beharko lirateke*".

## Ipar Center, ia prest

Bergarako industrialdean zabaltzeko dago *Ipar Center* izeneko zentru komertziala. Lanak oso aurreraturik doaz jadanik eta jabeen ustetan ekainaren 6rako martxan izango da. Bertan, 1.100 metro karratu inguru izango dituen pabeloian, aisialdearekin lotutako 3 arlo ezberdinetako produktuak izango dira salgai: brikolaje eta burdinaki piezak alde batetik, nekazaritza eta loragintzaren ingurukoak bestetik eta, azkenik, kirol munduko tresnak eta material ezberdina. Informatizaturiko salmenta (barra kodigoen bitartez) izango da eta bertan 7 bat pertsonak lan egingo dute.



### iRUDI

**Erlojudenda  
Bitxitegia**

San Pedro 11  
Tfnoa: 76 51 65

### OILAGORRA

### Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

### ANTIA

HARATEGIA  
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi  
eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



□ **Bidaiak**

**Jubilatueta**

Benidormera (ekainaren 14tik 26ra) eta Inersoko balnearioetara joateko bidaiak antolatu dira. Lehen kasuan, maiatzaren 22an bukatzen da izena emateko eguna eta bigarrenan ekainaren 5ean. Plaza mugatuak izango dira eta beraz, lehen bai lehen pasa zaitezke Egoitzatik.

□ **Partxis**

Gaztetxean eta *Popisen* zabalik dago **Bikotekako Partxis txapelketa**rako izena emateko epea. Partidak maiatzaren asteen jokatu dira eta finala berri, ekainaren 9an. Izena emateak 1.000 pta. balio du.

□ **EHE**

Bergarako Udalak baimena eman dio **Euskal Herrian Euskaraz** taldeari Komenio eta Bidekurutzeta kaleak elkartzen diren tokian (arkuetan) mural bat margotzeko. Aurretik borradorea aurkeztu beharko dute.



**Bakearen inguruan**

Gaur ostirala, Seminarioan egindako bakearen aldeko otoitzaldiarekin, eman zaie amaiera aste osoan zehar burutu diren **Baketzea gure herrian** izeneko ihardunaldiak.

Artziprestaldeko Kristau Elkarteak antolaturik, jende ugari bildu izan dute iragarritako hitzaldiek: astelehenean, mahai inguru oso interesgarri bat izan genuen, *Garraxi Ixila, Senideak eta Gernika gogoratu*z ikerketa taldeko kideen partaidetzarekin. Aretoa jendez gainezka zegoelarik, guztiek bere taldeen sortzearen arrazoia eta, aldi berean, beraien

jarrerak eta asmoak azaldu zituzten. Ondoren, talde bakoitzak duen bakearen ikuspuntua azaldu zuen, ondoren bildutakoekin debatea izan zelarik.

Asteazkenean Patxi Meabek Euskadin gauegun planteatzen diren galderak aztertu zituen eta ostegunean, berri, Jose Antonio Pagola Donostiako Elizbarrutiko bikari orokorra baketzearen oinarri eta jarreraren inguruan izan genuen hizlari.. Antolatzaileak bat etorri dira ihardunaldiak positiboki baloratzeko orduan, bai partizipazio aldetik zein plaza-ratutako ideiekin ere.

□ **Plenoa**

Astelehenean, maiatzak 18, Udaletxean egingo den **plenoan**, besteak beste, honako gaiak aztertuko dira: Udaleko organigramaren onartzea, kale garbiketaren adjudikazioaren plegu baldintzen onartzea, lokal baten erosketa Osintxun eta Udalak euskaraz funtzionatzeko hainbat erizpide.

□ **Lanbide Eskola**

Jadanik prest dago Matxiategin egingo den **Lanbide Eskola** berriaren proiektua. Orain obren adjudikaziorako beharrezkoa den tramitazio guztia egitea besterik ez da falta. Egindako kalkuluen arabera, lan hauek, gutxienez, bi urte iraungo dute.

□ **Odol emailleak**

**Gipuzkoako Odol Emalleen Elkarteak** odol emate berri baterako deia egin du asteazkene-rako, hilak 20, arratsaldeko 7etan Seminarioan.

**SOLANA**

- Materialen errekupeazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak




Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA  
Tfnoa: Biltegia: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09

**ELKAR**

**ELEKTRAGINTZA**

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA



**LASA JATETXEA**

Orain ostiral eta larunbat gauetan zabalik

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29

**AGIRREBEÑA**

Oinetakoak Erropa denda Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29





## Zaborren plangintza

Udalak eta Mankomunitateko zabor-bilketa zerbitzuak, zerbitzu hau hobetu nahirik, igandean, maiatzak 17, martxan jarriko den plangintza burutu berri dute. Horrela, zorian bilketa-guneak markatu dira (pintura horizko borobilak), bilketa modu arinagoz eta zarata gutxiagoz burutzeko helburuarekin. Bilketa egunak orainartekoak izango dira, hau da, astelehen, asteazken eta ostiraletan hainbat tokitan eta astearte, ostegun eta igandetan gainontzekoetan. Beraz, plan berriari astele-

henean emango zaio hasiera aurreneko kasuan eta igandean beste *zirkuituan*.

Orainarte bilketarik ez zen Kruz Gallastegi kalean ere hiru bilketa-gune jarri dira eta asteleneetik auzokideek bertan utzi ahal izango dituzte zabor boltsak. Zaborra, behar bezala itxitako plastikoko boltsa egokietan, gaueko 9etatik 10etara birtartean, ateratzeko eskatzen da. Era berean, urtarrilaren 2tik Ibarretan Hondakindegia Alternatiboa erabil daitekeela jakin arazten da.

## Txinpartak

✓ **Igerilekuak** itxi egingo dira larunbatean, maiatzak 16, arratsaldeko 2etatik aurrera, bertan Udaberriko Igeri Saria jokatuko baita.

✓ **Auskalo** taldeak alaiturik, larunbatean ere Zerbezaren eguna ospatuko da Tartufon gaueko ordubietatik aurrera.

✓ **Juan Balentziaga** margolari bergararraren hainbat lan ikusgai izango dira Donostiako Alde Zaharreko *Bartolo* tabernan ekainaren 27ra arte.


✓ **Kanpoko igerilekuko berdegunea** zabaldu zen asteazkenean bertan eguzkia hartu nahi dutenentzat. Bainurako berriz, ekainaren 7an zabalduko direla uste da.

✓ **Kultur Etxeak** bere 3. urteurrena bete zuen ostegunean. Errotalde Jauregian interes kulturalerako hainbat zerbitzu eskeintzen zaie herritar gutziei.

✓ **San Isidro** eguna ospatuko da larunbatean Antzuolan. Lehenbizi feria izango da, bola-jokua arratsaldeko 3retan eta, amaitzeko, 5etan, *Kukubiltxo* hanka-palu taldea Herriko Plazan.

✓ **Senideakek** aste osoan zehar presoen aldeko enkarteladak egin ditu San Martin enparantzian eguadiako 12etatik 2etara.

✓ **Arrasate-Oñati** antxitxiketa proba jokatuko da igandean eta izen-ematea karrera egunean bertan zabalik egongo da Monte tabernan.



### GAZTEKY S.A.

## Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

## TOKI-EDER

### Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

## AFA - BI

### Manufakturak, S. L.

P.V.C. Arozgintza eta aluminioa

Veka Sistema (Alemaniarra)

San Lorentzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 BERGARA

## KONDE

### PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57





# Bergarako Lanbide Hezkuntza Eskola

1.992-93  
IKASTURTEA

## ✓ IKASKETA ESKAINTZA

- I.E.E. 1. zikloa
- Batxilergoak:
  - Teknologia Industrial (2 kurtsu)
  - Administrarritza eta gestioa (2 kurtsu)
- Lanbide Heziketa 2. zikloa
  - Administrarritza 93 kurtsu)
  - Elektrizitatea / Elektronika (3 kurtsu)
  - Mekanika (3 kurtsu)

## ✓ EKIPAMENDUA

- |   |                             |
|---|-----------------------------|
| • Zientzia Esperimentaletako gela         | • Liburutegia               |
| • Adierazmen artistikorako gela           | • Informatika gelak         |
| • Oinarrizko Teknologia gela              | • Elektronika Laborategia   |
| • Makina Elektrikoen Laborategia          | • Ofimatika gela            |
| • Robotika eta Mikroprozesadore tailerra  | • Ikus-entzungailu gela     |
| • Oinarrizko Makina Herramienta gela      | • Automatismo gela          |
| • Makina Herramienta espezialitatuen gela | • Teknologia Laborategia    |
| • Metrologia eta Kalitate Kontrol Gela    | • CAD-CAM (marrazketa gela) |

## ✓ AURREINSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 15etik 30era bitartean

Tfnoa: 76 38 40 eta 76 24 91



# Irazabaleko Santikrutz

maiatzetik irailera kanpaiotsa berezia

**G**uk daukagun lehendabiziko urtea 1.548 garrenekua da. Orduan Arretetar Martin Pezen alarguna zen Munabetar Estibarezek bere testamentuan Irazabaleko Santikrutz ermitari hiru meza emateko dirua utzion. Azkeneko gerratean galdu omen zen Irazabalbeitian (Beittin) gorderik egoten zen bere kontuetako liburua. Beti aldare bakarrekoa izan omen da, bere buru Gurutze Santua zeukala. Ermitan horma bat egin zen erdi-erdian, aurreko zatia elizkizuntarako mantenduaz, eta atzekoa elizpe baterako egokituaz.

Gurutze Santuak Kristau kalendarioan bi jai ditu: maiatzean eta irailean. Bi hilabete horien bi-

tarteak bere berezitasuna zeukan; eta horrela, eliza eta ermita askoren kanpaien hotsak ere bereziak ziren. Ermitetako kanpaiak auzoetako bizitza nolabait zuzendu izan dute. Bere hotsak, desberdinak eta bereziak izaten ziren, deia zertarako zen kontuan hartuaz, edo auzotarrak berri baten jabe egin zitezen: goizeko, eguerdiko edo iluntzeko otoitza, elizkizuntarako deia, auzoko baten hilzoria edo heriotza adierazteko, zerraldoa elizarako bidean ermitaren aurrean pasatzerakoan, su-kanpaia, hodei edo harri kanpaia, eta abar.

Zerraldoa elizara eramaterakoan, ermitaren aurrean errespontso bat errezatzen zen. Adibidez, Basalgotik Santamañara



jeisterakoan Barrutiko onduan, Santo Tomasen ermita izandakoaren izenean, errespontso bat errezatzen zen eta gero San Lorentzoren aurrean gelditu, eta beste bat; neronek ezagutu dut. Lehe-

nago, bidea ere berezia zen: eliz-bidea.

*Imanol Sorondo*

I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K

I  
Z  
A  
R  
H  
O  
I  
Z

I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K

Barrenkale 10, Tfnoa; 76 18 22

**K**abia

*Altzariak*

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

**MEKOLALDE  
TABERNA**

☎ 76 50 18  
Mekolalde

Larunbata, hilak 16 itxita egongo da.  
Barkatu eragozpenak.





# Ikuskizun magikoa

aspaldiko partez zirkoa dastatzeko aukera izan dugu

Telebistako izarrak dakartzaten sasi-zirkoak, pelotaleku edota toki itxietan antzezten duten zirko horiek, ugaldu egin dira azken urteetan. Baina, aldi berean, benetako zirkoak, karpadunak, lehen baino gutxiago badira ere, zinearen, telebistaren eta, batez ere, bideoaren konpetentziari aurre egitea lortu dute, eta oraindik, haurren ikusmina pizten jarraitzen dute.

Aspaldiko partez, benetako zirkoa (tigre, elefante, hipopotamo eta guzti) bisitari izan dugu aste honetan, eta egonaldi arrakastasua izan du gainera...

*«Jaun andreok, haur eta gazteok. Zuekin, munduan den espektakulorik ikusgarriena, zoragarriena...: Medrano Zirko Alemana». Pailazo, trapezista, ekilibrista, mago, eta tigre eta elefanteen*

domadoreek eskeinitako saioak biltzen dituen espektakuloari hasiera eman dio argi eta bitxidun trajeaz jantzita dagoen emakumezko lirainak; mikrofonoa eskuan duela bi ordu luzetako saioaren

aurkezpena egin du.

Bi egunez bisitari izan dugu zirkoa eta 3.000 lagun inguru izan dira zirkora hurbildu diren bergararrak. Argi geratu da beraz, zirkoa ez dagoela hilda, urteetan bere

eskeintza aldatu ez duen arren, gaur egungo zirkoak gure aitonek ikusten zuten espektakulo beretsua eskeintzen duen arren, jendearen ikusmina sortarazten jarraitzen duela: *«Jendeak zirkoa gustoko du, espektakulo ona eskeintzen zaionean, eta batez ere tigreak eta lehoiak ikusteko aukera eskeintzen zaionean zirkora etortzen da. Benetako zirkoari min haundia egiten diotenak karparik gabeko sasi-zirko horiek dira»*, esan digu Franz Burkhartek, Medrano Zirkoko domadore austriarrak.

Domadoreak, trapezistak eta pailazoak dira zirko on baten ardatz nagusiak, horregatik Medrano Zirko Alemaneko tigre domadorearekin, trapezistekin eta pailazoekin elkartu gara eta euren lanbideari buruzko xehetasunak eta nondik-norakoak jaso ditugu.

## Zirkoan jaioa

Franz Burkhart tigre eta lehoien domadorea, zirkoan jaio, hazi eta bizi dela esan genezake. Bere arbasoak bezala, latigoa eskuan, txikitxikitatik ekin zion animaliak domatzeari: *«nire gurasoak, aitonak, birraitonak eta euren arbasoak, domadoreak ziren eta nik ere lan honetan gaztetatik dihardut. 46 urte ditut eta zirkoan hilko naiz»* esan digu zirkoarekin mundu osoa zeharkatu duen Franz Burkhartek.

*- Bizitza osoa piztien*

## PRiMi

- Mariskoak, arrain fresko eta izotzuak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90  
San Antonion Tfnoa: 76 21 08  
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91

## Tximak

### Ileapaindegia

Fraikozeuri 3, Tfnoa: 76 56 69

## EXUKUN

### BEREZITASUNAK

Fraikozeuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA



**artean eman duzu. Ez duzu ezbeharrik inoiz izan?**

- Bai, gorputzean arrasto pila dut, baina sekula ez dut ezbehar graberik izan. Hala ere lagun baten eta koadrata baten heriotza gertu gertutik bizi izan ditut eta anai bati, oster, beso bat eramanez pizti baten erpekada batek. Arriskua gertuan daukagu baina arreta haundiz ibili ezker ez dago zertan kezkatu beharrik. Arriskua edonon dago, baita kotxea gidatzerakoan ere.

**- Domadorea izateko zer behar da?**

- Domadorea edonon izan daiteke, ez dago indartsua izan beharrik, ezta oso ausarta izan beharrik ere. Piztien artean bizi ezker eta hauek izakera sakonki ezagutu ezker, ez da beldurrik izaten.

**- Franz, piztien ikuskizunak zirkoko beste edozein atrakziok baino gehiago gustatzen direla uste duzu?**

- Bai eta herrialde latinoetan, ipar-herrialdeetan baino gehiago. Afrika eta Asian ere harrera ona dute.

**- 46 urte dituzu, noiz arte piztien aurrean?**

- 70 urterekin lanean ziharduen lagun bat ezagutu nuen... Lanbide honetan, ardoarekin gertatzen den bezala, urteak joan ahala hobera egiten da, zenbat eta zaharrago, jakinduria haundiagoa.



**Zirkoon bizitza guztirako**

Zirkoko ikuskizunetan lan egiten duten gehienak bezala, David Cost eta Jennifer Genovesi, Medrano zirkoko trapezistek, hil arte zirkoon jardungo dutela aitortzen dute. Gazteak dira: batek 18 urte ditu eta besteak, 17 eta mundu honetan hasi berriak direla esan genezake. *«Trapezista ona izateko, lan gogorra egiteaz gain, zirkoa maite behar da. Trapezioarekin edonork lan egin dezake, baina zirkoa bihotzean, zainetan, eramatea behar-beharrezkoa*

*da nire ustez», esan digu Jennifer Genovesik.*

Batak zein besteak, sare barik lan egiten du, 15 metrotako altueran, azpian inolako babesik gabe. Horrek bere arriskuak ditu: *«erori ezker, lurrarekin topo egin eta mina hartzeko arriskua dago. Behin, horixe gertatu zitzaidan, nere debutaren egunean, ikusle gozatuaren erdian, urduri xamar jarri nintzen eta erori egin nintzen. Besoa ahutsi nuen, baina gehien munda ninduen pasa nuen lotsa izan zen, ez dut sekula ahaztuko», adierazi digu David Cost italiar trapezistak.*

**Hurrei barre algarak sortarazten**

Askorentzat pailazoak dira zirkoko erregeak. Horrela uste du behintzat Pedro Santos *«Los Ribelinos»* hirukoteko kideetako batek. Madrildarra, 26 urte ditu eta urte asko daramatza pailazo lanean. Zirkoon jaio zen. Telebistan sarri irten da eta pelikula batean ere parte hartu zuen txikia zenean. Iaz anaiekin batera ibili bazen ere, aurrean, beste lagun batzuekin batera, hirukote berria osatu du eta Medrano Zirkoon ari da urtarrietik. Pedroren eritziz, *«Pailazo izateko ofizioa maitatzea behar-beharrezkoa da, zeren txikitik trapezioan lan egitea nahi izaten bait dugu zirkoon bizi garen guztiok. Nik trapezioa ezagutu dut eta esan dezaket ofiziorik zailena pailazoarena dela, sekula ez duzulako guztia ikasten».*

Publikorik onena Barcelona eta Madrilekoa direla esan digu, *«Euskal Herrian ere harrera oso ona izan dugu. Bilbon Tonetti anaiekin lan egiteko aukera izan nuen eta jendeak oso gustora hartu gintuen».*

Telebistak zirkoon ikuslerik kentzen ez diola uste duten horietako da, biak osagarriak direla dio: *«zirkoa ez dago hiltzerian, mundu osoko krisi ekonomikoaren eragina jasaten ari gara, baina etorriko dira garai hobeak».*

Etorri bezala joan zaizkigu zirkoko artistak...

**Pepelu**  
Ileapaindegia  
Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

**ARRANO**  
  
**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA

**MAKAILO**  
Makailau **ETXEA**  
kazuelak gertatzen ditugu  
Ibargarai 15



## Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



### ETXE AUNDI

Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
ONATI

# FS

oto istema

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.


Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

## Zirko zalea al zara?



Marian Mas  
33 urte, irakaslea

Bai asko gustatzen zait eta gehiago ekarri beharko lukete, baina benetako zirkoa, animala eta guzti...



Juan Egaña "Pitia"  
53 urte, langilea

Lehen bai baina orain ez. Zirkoa haurrentzako da.



Elias Garcia  
17 urte, ikaslea

Bai beti gustatu izan zait, batez ere tigreak eta leoiak dakartzatenean.



Arazeli Alarzia  
58 urte, etxeandrea

Ez, txikitan asko gustatzen zitzaidan baina orain ez. Orain aspertu egiten naiz.


BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

# Larrañaga

San Pedro, 9 - Telefono: 761051

R S I 209374 SS

## BERGARA




### POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

### DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51





## Bakearen atarian

Urtea aurrera doa eta iaz beldur ba geunden ETAK aurten egingo zituenekin, pronostiko guztiak hautsi dira dagoeneko. Hurrengo egunaren itxaropenean bizi gara, nahiz eta oraindik arazo nagusienak konpondu ezinean ibili, alegia, presoen etorkizuna eta, azken finean, mui-nean, euskal gatazkaren irtenbidea.

ETA desagertu arren, oraindik arazo politikoak iraungo du, eta alderdi abertzale eta espafolisten arteko tirabira, beharbada, gogortu ere egingo da. Bai EAJK eta EA-EUEk (nola bateratu abertzal hutsetik eta marxismotik datozen pentsamoldeak?, apostu arriskutsua benetan) Herri Batasunak dituen botoak bereganatzeko ahalegin guztiak martxan jarriko dituzte, hasi ez badira jadanik.

Etorkizuneko zailtasun haundienak, dena dela, alderdi espafolisten artean geratuko dira.

PPren mezua azken urteotan antiterrorismoan bakarrik gauzatu da Euskadin. Eta gatazka armatua amaitu ondoren agian zer esanik ez du izango. PSEk, beraz, Euskadiko Ezkerraren jarraitzaileen etxeetan sartzeko premia badu, batez ere bere irudia euskalduntzeko. Euskal ezkerrean indar boteretsu bat antolatzea, EAJren gobernu alternatiba bihurtu nahian, proiektu zilegia da baina non kokatu HBren botoak? EA-EUEk aurrera jotzen ez badu, EAJK irabaziko ditu gehien bat. Edonola, HBren puskaketa teoria besterik ez da, baina ETArek mendekotzatik askatzen bada, euskal abertzaletasunaren alderdi indarberritu bat bihurtzeko aukera izango luke. Hurrengo egunerako horixe luke gauzarik onena.

**Iñigo Urrutia**



## Kontzientzi Objezioa

Maiatzaren 15ean Nazioarteko Kontzientzi Objezioaren Eguna ospatzen da. Urtero, egun hau objezioaren eskubidea errespetatzen ez den estatu batetan gogoratzen da.

1.990eko urtean Estatu Espafolari tokatu zitzaion. Egundau insumisioaren estrateji kolektiboa bultzatzeko eta insumiso presoekin elkartasuna adierazteko erabili zen.

Estatu Espafolak, "democratico y de derecho" beraien esanetan, oraindik milaka gazte bahitzen ditu (legalki, noski) eta soldaduska egitera behartuak izaten dira.

Baina horren aurrean 1.989an kolektibo antimilitaristok geure jarrera garbi utzi genuen: Desobediencia Zibila, insumisioaren bidez. Handik aurrera kontzientzia antimilitarista zabaltzen joan da eta orain insumisioa, sektore sozial askogaitik bultzatua dago.

1.992an martxan jarri den lege berriak zerbait aldatzen du egoera. Insumisoak jurisdikzio militarretik zibilera pasatzen dira, teorikoki zigorrak haundiagoak izango direlarik. Baina orain arte eta azkenengo sententziak ikusita, ez du ematen horrela izango denik.

Gaur, gure esku dago, Ejerzitoa eta berak duen eragina gizartean, behin betiko baztertea: soldaduskari eta ordezkari zibilarik uko egiten, tiro poligonoetatik militarrek botatzen, zerga militarrek ez ordaintzen...

**Markos Perez**

# ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

Atsedeen zentrua

## LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01



*Las Postas*

KAFETEGIA - JATETXEA

Logroñorako bidean (Gasolindegian)

Tfnoa: (941) 10 02 85

LAGUARDIA

(ARABA)



## Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



# Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



ILEAPAINDEGI MISTOA ESTILISTA.

Artekale 29. Behea  
Tfnoa: 76 29 70  
BERGARA.

# ANDUZU

ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA

- Azulejo erakusketa
- Onduline
- P.V.C.
- Blokeak
- Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

# Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65



1.942. urteko andrak.

## Errekorra

1.942. urtean jaiotako bergararrek ondo eramandako 50 urteak ospatu zituzten larunbatean. Hildakoen omenezko mezaren ondoren, *Antxonin* afari goxoá... eta afalostean martxa ederra izan zen jatetxean bertan *Ibaiken* dantzaldiarekin. Guztira, marka guztiak hautsiz, 150 pertsona inguru bildu omen ziren, gizon eta emakumeak noski. Nola dantzatu bestela?



Honako erretratuan gizonak agertzen zaizkigu.

# MINER Ardo onak, ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA



**Palomero**

Jendeak tabernak zabaldu besterik ez direla egiten pentsatzen badu ere, badira ixten direnak ere. Horietako kasu bat dugu **Palomero taberna** historikoarena. *Palomerotarrek* gerra ostetik zabalik izan duten tabernak ez du jasan urteen igarotzea. Orain, Eulogiari ere jubilazio ordua heldu zaionean, anai-arrebek 50 urte inguruko historia luzeari amaiera eman diote, lokalaren etorkizuna zehazteke dagoelarik. Martoko gainera heltzen direnek, behera egin beharko dute hemendik aurrera...




**Mendian lanean**

Institutuko 1.go mailako ikasle hauek, joan den astekoan ikas-bidaia egiteko ordua heltzen zaien bitartean, *gogor* egin beharko dute lah. Horrela, argazkian agertzen den taldetxoa, **Artikutzan** izan dugu bi egunez naturarenganako interesa piztu eta inguruneke zenbait elementu bereizten jakiteko asmoz. Egindako ibilbideetan interesgune batzu azpimarratu eta azalpen batzu eman zaizkie, ondoko lana beraien esku utziz. Ikasgai emankorra, duda barik.

**Zertan dihardute ba?**

**UNAI URBINA**



Caldereria San Pedro taldeko 17 urteko txirrindulari bergararrak gazte mailako Arantzazuko Igoeraren XXII. edizioa irabazi zuen igandean, azken metrotan Iñaki Txakartegi atzean utzi ondoren.

**LEANDRO SILVAN**



91 urteko historigile madrildar ospetsu honek maiatzaren 29an gure herrian plaza-ratuko du "*Louis Prousten biografia*" eta "*XVIII. mendeko amaieran Bergarako ikasketa zientifikoak*" bilduko dituen liburua.

**ELEKTRO**

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak, automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19, Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43



**KORTA-ZAR**

Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoan espezialitatea

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62



## Umore giroan

### Lizentzia ez pazientzia

Marino peskan ari zan Maltzan. Orretan eta onetan, etorri jako atzetik guardia zibila eta esaten detsa:

- I, Marino, badakak peskarako lizentziarik?  
- Lizentzia?  
- Bai, lizentzia. Peskan jarduteko lizentzia biok.

Marinok:

- Lizentzia, ez. Peskan biar dana pazientzia dok.

\* \* \*

### Kazarixen "falluak" ataritzen

Lagunarte aundi baten, an zeguan "pontifikatzen" gure "Gatus". Momentu aretan, kazari-xekin sartzen zeguan.

- Onek kazarixok ge-



zurra besterik ez jakek. Gaiñera, kazia aitzeki artuta juergara juaten ditzuk eundik larogeitar.

Ori entzunda, kazari amorratua eta era berian, gizon zintzo ta zuzena zan Peli Aldazabal jaiki jakon asarre.

"Gantxus"ek, ixildu zeban:

- Ik eztaukak zertan ke jau. I "diezporziertuan" sartzen aiz.

Pedro Zelaia

## Antzinako kontuak

### Udal karguak

Gaurko ikusmolde arrazionalistaren arauera, hiritarrak bere ordezkaria izendatu behar duenean, hautagaiari bere asmo politiko administratiboen berri eta zein jokabide izango duen azal ditzala eskatzen dio. Gero, botoen ondoren, suposatzen da botatuenak direla egokienak ardurak aurrera eramateko. Gizarte tradizionalak burubide desberdinekin jokatzeko zuten. Gizonaren edozein hautaketak bere baitan errorea eta interesa zera-mala zen haien abiapuntua eta beraz, ez onena gauza publikoarentzat. Beraz erabakia jainkoaren esku lagatzen zen suertearen bidez, inpartzialtasunaren garantia bakarra. Horrela klasikoak Fortuna jainkosaren esku uzten zuten aukera eta kristauak jainkoaren probidentziaren esku.

Honengatik Euskal He-

rriko kargu publikoen hautaketa "zakuratze" sistimaz egin ohi zen, zakuan sartutako izenak atereaz, alegia. Bergarako kasuan ez zen zozketa hutsa, ezen zakuko hautagaien artetik 4 izen ateratzen bait ziren, eta hauek ziren lehengo hautatzaileak eta hauek beste lau izendatzen zituzten eta hauek ziren bigarren hautatzaileak edo "txipiak". Azken hauek beste lau izen proposatzen zituzten eta zakuan sartu ondoren, lehenengo irtetzen zena alkatea zen eta gerokoak sindikoa eta errejidoreak.

Esan beharra dago mundu guztia ezin zela zakuan sartu. Baldintza estuak bete behar izaten ziren, erdaraz irakurtzen eta idazten jakitea, adibidez, edo ondasun kopuru baten jabe izatea.

Juantxo Madariaga

# ARDATZA

## Brikolaketa

**ATEAK  
eta  
HORMA  
ARMAIRUAK**

Mahasterreka 4  
☎ 76 18 93



Barrenkale 31

# Gaspar

## Jatetxea, Txokolategia, Self Service-a

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA


# IBARGUREN PENTSUAUAK

**Biona pentsuen biltegia.  
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



# BONOFOTOA



M. A. Ekoroberezi bar



## Baldomero Fernandez de Retana

Baldomero Fdez. de Retanak irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria: 10.000 pzta, berak jarritako erantzuna, "Deba eta Antzuola errekek", zuzena zelako. Zorionak Baldomerori eta, besteok, segi jokatzen!!

*Zein da jauregi honen izena eta bertan bizi izan zen azken kontearen abizena?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

**Aste honetako saria :**  
**10.000 pzta.**

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia**  
**20.570 Bergara**



# KALITATEZKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA ETA DOHAINA

Hizkuntzak

**Ingelesa eta frantsesa, biak batera, ikasteko aukera.**

Institutuak Eskualdeko beharrei erantzunez dauden hiru eredu ezberdinetan ihardungo du:

- **A - Erderaz** (Euskara asignatura bezala)
- **B - Elebiduna** (Euskaraz eta erdaraz)
- **D - Euskaraz** (Gai guztiak euskaraz)

Burutu nahi duzun goi ikasketari begira prestakuntza egokiena.

BBB-ko eta UBI-ko letrazko eta zientziazko opzio guztiak, lau aukerak zure esku dituzularik.

	<b>Zientziak</b>		<b>A Tekni-zientifikoa</b>
<b>3.BBB</b>	<b>Nahasiak</b>	<b>UBI</b>	<b>B Biosanitarioa</b>
	<b>Letrak</b>		<b>C Zientzi-Sozialak</b>
			<b>D Human-Linguistikoa</b>

## BERGARAKO BATXILERGO INSTITUTOA

**AURREINSKRIPZIO EPEA**

Maiatzaren 15etik 30era

Tfnoa: 76 31 42



**□ Igeriketa**

Larunbatean, maiatzak 16, Udaberriko Igeriketa Sariaren 4. ihardunaldia jokatuko da Bergarako igerilekuan arratsaldeko 4retatik aurrera. 100 m. bizkarrera, 50 estilo librean eta 200 estiloko probak jokatuko dira eta Legazpi, Arrasate, Oñati, Eibar eta Bergarako igerilariiek hartuko dute parte.

**□ Aurkezpena**

Asteazkenean, Udaletxeko Pleno aretoan, ekainaren 18an Bergaran amaitu beharreko Euskal bizikletaren etaparen aurkezpena egingo da. Gatika eta Bergara arteko etapaz gain, ekainaren 19an gure herritik aterako da Donostian amaituko dena.



**Zabaleta bigarren**

Aitor Zabaleta gidatzen duen bigararrak lasterketa bikaina burutu eta meritu handiko bigarren postua eskuratu zuen igandean Jaizkibelego Igoeran. Jokatutako bi txandetan Aitor bigarren izan genuen, Andres Vilariño bere *maisua*ren atzetik. Lehenean Andresek 2.13 segundu atera bazizkion, bigarrenetan 66 zentesimatako aldea besterik ez zen izan bi gidarien artean.


Proba hau Europako Mendi txapelketarako baliozko baten ere, Aitorri bigarren postua honetara Espainiako txapelketako lidergo eskuratzeko balio izango dio. Orainarte jokatutako bi probetan garaipen bat (Castellonen) eta igandeko bigarren postua lortu izan ditu eta garaipen berri bat eskuratzeko asmoz abiatuko da Zabaleta Andorrara datorren maiatzaren 24ean.

**□ Futbola**

Bergarako futbol taldeak erronka berri bati egin beharko dio aurre igandean Agorrosinen. Hiru partidua besterik geratzen zaizkienean, bergararrek beharrezkoa dute Irungo *Gwendolineren* aurka irabaztea. Momentu honetan, 3. ditugu eta gogoratu 1. goak igo eta 2. sailkatzen denak promozionatu egiten duela.

**□ Pala**

Pala txapelketak ere aurrera darrai. Igande honetan, goizeko 9etan hasita, azken aurreko ihardunaldia (seigarrena) jokatuko da Osintxuko pelotalekuan. Maiatzaren 24an jokatuko da azkena eta maiatzaren 31ean, berriz, final aurreak izango dira.



**Pelota astebukaeran**

Larunbatean, gaueko 10.30etan, Antzuolan, Bergarako infantil mailako bikoteak Deba Arroko finala jokatuko du Ermuakoaren aurka. Hasieran Muruamendiaraz eta Gutierrezek jokatu behar zuten finala, baina Gutierrezek asteartean eskumuturra hautsi zuen eta ziurrenik Osak ordezkatu du. Ostiralean, bestalde, Bergarak Herri-arteko txapelketaren itzulerako partidua jokatuko du Beasainen aurka gaueko 10etan herri pelotalekuan. Joan den larunbatean Beasainen jokatutako lehen kanporaketa honetatik 3 eta 0eko garaiepea ekarri zuten bergararrek.

**BOLINTXO**

*Kirola egiteko behar den guztia*

Ibargarai 10,  
Tfnoa: 76 38 32



zumelaga

**JATETXEA**

San Antonio 5 BERGARA  
Tfnoa: 76 20 21

**LETE**

**TOLDOAK**

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.  
☎ 79 23 83 ARRASATE  
☎ 76 12 24 BERGARA  
☎ (94) 681 76 19 IURRETA





*Gerra osteko Labegaraietako eskolako haurrak*

**A**tzeko ilaretatik hasita, ezkerretik eskumara:

Don Juakin Murua (Apaiza), Angelita Lizarralde (Andereñoa), Nikolasa Agirrebeña, Karmen Goikoetxea, Maria Lizarralde, Kontxita Makazaga, Anita Zeziaga, Maria Hormaetxea, Kasilda Pildain, Rosita Alberdi, Angelita Gastañares, Laurita Lazkano, Juanita Agirrebeña, Juanita Mendieta, Juanita Igartua, Maritxu Murgiondo, Karmen Lazkano, Pilar Arietaleanizbeazkoa, Jesusa Agirrezabal, Maritxu Mendibil, Esperanza Arrieta, Teresa Inciarte, Maria Pilar Larrañaga, Trini Mugika, Angelita Osinalde, Mari Tere Arenaza, Karmen Agirreolea, Marcelita Ormazabal, Maria Luisa Oiarzabal, Josefina Agirrebeña, Ana Maria Agirre, Maria Luisa Unamuno, Rosarito Palomero, Maria Intxausti, Beatriz Lazkano, Maria Luz Arrizabalaga, Angelita Etxeberria, Julia Juaristi, Elena Luarizaristi, Esther Alercia, Esperanza Etxebarria, Kontxita Larrañaga, Nati Agirre, Miren Retegi, Beatriz Lazkano, Beatriz Urbina, ezezaguna, ezezaguna, Begoña Inciarte, Maria Luisa Iñurrategi, Miren Castañares, Eugenia Alberdi, Consuelo Aiausti, Antonia Arrieta, Arantxa Zeziaga, Juli Arietaleanizbeazkoa, ezezaguna, Teresa Murgiondo, Amaia Arrieta, ezezaguna, Milagros Garitano, Jesus Madariaga, Simon Arenaza, Julian Aginagalde, Jesus Zeziaga, ezezaguna, Nieves Mendibil, Maria Kruz Arriaran, Ignacio Arenaza, Maria Luisa Arregi, Jose Mari Arakistain, Jabier Fernandez, Migel Muñoz, Eusebio Arietaleanizbeazkoa, Juan Kruz Bengoa, Juanito Mugika, Jose Mari Garitano, Luzio Lizarralde, Bixente Laskurain, Daniel Igartua, Jose Luis Garmendia, ezezaguna, Anjel Unamuno, ezezaguna, Anjel Aiausti, Felix Pardina, Andres Agirrebeña, Joakin Zeziaga, Alejandro Palomero, Karmelo Mendibil, Santos Arietaleanizbeazkoa, ezezaguna, Bixente Madariaga, Sebastian Agirre, Bernardino Agirre, Pedro Garitano, Sebastian Alberdi, Daniel Kortabarria, Jose Mari Urbina, Pablo Arrizabalaga, Esteban Inziarte, German Arregi, Jose Mari Arregi eta Arantxa Iza.

*Estepan Plazaola  
Argazkia: Maritxu Arregi*

**BOURNE**  
**Merzeria - Lenzeria**  
D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

**Zatoia**  
Boutique  
BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

**CALLASTEGUI**  
**Jostundegia**  
Mahoizko lanerako jantziak  
San Pedro 17, Tfnoa: 76 10 85



**ETXEBIZITZA**

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Etxebizitza salgai Artzamendin. ☎ 76 10 10 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Pisua salgai Donostian (Amaran). Sukaldea, 2 gela, saloia eta bainu gela. ☎ 45 81 56 (eguerdian)

Bi apartamentu alokatzentzen ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Pisua salgai Ozaetan. Ganbara, garaje eta guzti. ☎ 76 51 52.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Garajea salgai. ☎ 76 23 38.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua salgai Zabalotegin (Mariaren Lagundiaren atzekaldean dagoen etxean). ☎ 76 10 05.

**SALDU-EROSI**

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

Mendiko bizikleta salgai, MENDIZ markakoa, Shimano Deore-rekin ekipatua. ☎ 76 49 56 (gauzez).

Dantzaldietan, bodetan e.a. etan ibiltzen den taldeak teklista bat behar du. ☎ 73 01 17.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiautomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Mendiko bizikleta (hiru koloretako MBK) galdu zait Mahasterrekako etxe berrietako garajejan. Topatzen duenak dei nazala mesedez. ☎ 76 25 45.

GOLF GTI, SS. AB matrikula, salgai. (1.300.000 pzta). ☎ 76 04 22 (gauzez).

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. Manuala eta automatikoa. Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

3 ateko AX GT-ko baka bat salgai. ☎ 76 24 81, iluntzeko 8etatik aurrera.

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 15.000 pezeta. ☎ 76 21 35.

Ski alpinoko bota pare bat (43a) salgai. Berri-berriak, 2 hilabete. ☎ 76 38 72. Alex.

**LANA**

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko neska euskaldun bat behar da Ubaran. ☎ 76 25 49.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Mutil batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

Pertsona euskalduna behar dut tabernako lanetarako. ☎ 76 20 62.

**Hildakoak**

*Felicia Alzelai Irazola*  
maiatzaren 9an, 81 urte-  
*Francisca Ezpeleta Enparanza*  
maiatzaren 9an, 92 urte  
*Cecilio Irizar Jauregi*  
maiatzaren 11an, 82 urte

**Jaiotakoak**

*Jone Ojea Ugarte*  
maiatzaren 4ean  
*Ander Barruso Iturbe*  
maiatzaren 12an

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Bergarako Jaietan etor zaitez gurekin**  
**EXPOra!!**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

**LAZKANO**

**OINETAKOAK**

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
BERGARA



# JAKINA

**BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK**




ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorentzo Poligono Industrialia, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxa; 76 02 91. BERGARA



**SORALUZE  
OSTATUA  
IREKI  
BERRIA!!**

- Logela ederrak zerbitzu guztiekin.
- Eguneko menua eta karta.
- Ezkontzak, banketeak, bataioak, enpresako bilerak,...

Arantzazurako Bidea z/g Tfnoa: 76 61 79 - 71 60 70 Faxa: 71 60 70 OÑATI